

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZALDIBIAKO UDALA

Iragarkia

Zaldibiko Udalbatzarrak, 2020ko uztailaren 23an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen haserako onespina ematea Eraikuntza-ordenantzak, jendeaurreko epea pasa ondoren erreklamaziorik ez bada ezartzen onespina hau behin betikoa izango dela esanez.

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, onartutako testua argitaratzen da.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita; egoki irizitako beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

Aplikatzekoa den legeria: urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena 123. eta 124. artikuluetan; eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arautzen duena, 46. artikuluan xedatutakoa.

Zaldibia, 2020ko urriaren 19a.—Alkatea. (5376)

ERANSKINA

ZALDIBIA. ERAIKUNTZA-ORDENANTZAK

— Aurkibidea.

Zioen azalpena.

1. kapitulua. Aplikazioa eta kontzeptuak.
1. artikulua. Aplikazio-eremua.
2. artikulua. Kontzeptuen definizioa.
3. artikulua. Espazioak neurtzeko sistema.
2. kapitulua. Eraikin guztien baldintza komunak.
4. artikulua. Jasangarritasun-irizpideak.
5. artikulua. Eraikinen ekoeraginkortasun-irizpideak.
6. artikulua. Faseka birgaitzeko irizpideak.
7. artikulua. Kokalekuak, zerbitzuak eta instalazioak.
8. artikulua. Irisgarritasuna.
9. artikulua. Eraikinen jabe eta erabiltzaileentzako erabilerabaldintzak.
3. kapitulua. Egoitza-eraikinen baldintza komunak.
10. artikulua. Parametro orokorrak.
11. artikulua. Lurzatiaren itxurak.
4. kapitulua. Etxebizitza-eraikinei aplikatu beharreko baldintzak.
12. artikulua. Babes ofizialeko etxebizitzak.

AYUNTAMIENTO DE ZALDIBIA

Anuncio

El Pleno del Ayuntamiento de Zaldibia, en sesión celebrada el día 23 de julio de 2020, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza de Edificación, señalando de que si en el periodo de información pública no se presentaba alegación alguna el acuerdo se consideraría definitivo.

Transcurrido el periodo de información pública sin que se haya presentado ninguna alegación, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el texto que ha quedado aprobado definitivamente.

Contra el acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio, sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

Legislación aplicable: artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

Zaldibia, a 19 de octubre de 2020.—El alcalde. (5376)

ANEXO

ZALDIBIA. ORDENANZAS DE EDIFICACIÓN

— Índice

Exposición de motivos

Capítulo 1. Aplicación y conceptos.

Artículo 1. Ámbito de aplicación.

Artículo 2. Definición de conceptos.

Artículo 3. Sistema de medición de los espacios.

Capítulo 2. Condiciones comunes a todos los edificios.

Artículo 4. Criterios de Sostenibilidad.

Artículo 5. Criterios de ecoeficiencia en los edificios.

Artículo 6. Criterios de rehabilitación en fases.

Artículo 7. Emplazamiento, servicios e instalaciones.

Artículo 8. Accesibilidad.

Artículo 9. Condiciones de uso para propietarios y usuarios en edificios.

Capítulo 3. Condiciones comunes a los edificios residenciales.

Artículo 10. Parámetros generales.

Artículo 11. Cierres de parcela.

Capítulo 4. Condiciones aplicables a los edificios de vivienda.

Artículo 12. Viviendas de VPO.

13. artikulua. Irisgarritasuna eta eskailerak.
14. artikulua. Eskailera baten gutxieneko neurriak.
15. artikulua. Eskaileren argitasun- eta aireztapen-baldintzak.
16. artikulua. Perimetroan itxitako patioak.
17. artikulua. Etxebizitzaren orientazioak.
18. artikulua. Kanpo-tratamenduaren baldintzak.
5. kapitulua. Etxebizitza berrien edo berreraiki, eraberritu edo handitutako etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak.
19. artikulua. Segurtasun-baldintzak.
20. artikulua. Ekoeraginkortasun-baldintzak.
21. artikulua. Irisgarritasun-baldintzak.
22. artikulua. Bizigarritasun-baldintzak.
6. kapitulua. Bizigarritasun-baldintzak lehendik dauden eraikinetako etxebizitzetan.
23. artikulua. Eraikinaren baldintzak.
24. artikulua. Segurtasun-baldintzak lehendik dauden etxebizitzetan.
25. artikulua. Osasungarritasun-baldintzak lehendik dauden etxebizitzetan.
26. artikulua. Ekoeraginkortasun-baldintzak lehendik dauden etxebizitzetan.
27. artikulua. Irisgarritasun-baldintzak lehendik dauden etxebizitzetan.
28. artikulua. Espazio-baldintzak lehendik dauden etxebizitzetan.
29. artikulua. Ekipamendu-baldintzak lehendik dauden etxebizitzetan.
30. artikulua. Jabe eta erabiltzaileen erabilera-baldintzak lehendik dauden etxebizitzetan.
7. kapitulua. Garajeen baldintzak.
31. artikulua. Garaje kolektiboak.
32. artikulua. Familia bakarreko etxebizitzetako garaje indibidualak.
33. artikulua. Bizikleta eta motozikletentzako gutxieneko aparkaleku-zuzkidura.
34. artikulua. Ibilgailu elektrikoaren bateriak kargatzeko gutxieneko zuzkidura.
8. kapitulua. Trastelekuen baldintzak.
35. artikulua. Erabilera.
36. artikulua. Gutxieneko neurriak eta altuera.
37. artikulua. Sarbideen baldintzak.
38. artikulua. Aireztapen-baldintzak.
9. kapitulua. Egoitza-erabilera ez den beste erabilera bazueta bideratutako lokalei (merkataritzakoei eta antzeko erabilera dutenei) aplikatu beharreko baldintza funtzionalak.
39. artikulua. Sartzeko baldintzak.
40. artikulua. Espazioen gutxieneko altuera librea.
41. artikulua. Lokalen gutxieneko azalera.
42. artikulua. Goitegiak beheko solairu edo solairuarteetan.
43. artikulua. Argiztapena eta aireztapena.
44. artikulua. Komunaren zuzkidura.
10. kapitulua. a.10. Eraikuntza irekia erabilera duten lurzatiei aplikatu beharreko berariazko Ordenantzak.
45. artikulua. Eraikigarritasun-baldintzak.

- Artículo 13. Accesibilidad y escaleras.
- Artículo 14. Dimensiones mínimas de una escalera.
- Artículo 15. Condiciones de iluminación y ventilación de las escaleras.
- Artículo 16. Patios cerrados en su perímetro.
- Artículo 17. Orientaciones en viviendas.
- Artículo 18. Condiciones de tratamiento exterior.
- Capítulo 5. Condiciones de habitabilidad de las viviendas de nueva planta, reedificación, reforma o ampliación.
- Artículo 19. Condiciones de seguridad.
- Artículo 20. Condiciones de ecoeficiencia.
- Artículo 21. Condiciones de accesibilidad.
- Artículo 22. Condiciones de habitabilidad.
- Capítulo 6. Condiciones de habitabilidad de las viviendas en edificios existentes.
- Artículo 23. Condiciones del edificio.
- Artículo 24. Condiciones de seguridad en viviendas existentes.
- Artículo 25. Condiciones de salubridad en viviendas existentes.
- Artículo 26. Condiciones de ecoeficiencia en viviendas existentes.
- Artículo 27. Condiciones de accesibilidad en viviendas existentes.
- Artículo 28. Condiciones espaciales en viviendas existentes.
- Artículo 29. Condiciones de equipamiento en viviendas existentes.
- Artículo 30. Condiciones de uso para propietarios y usuarios de vivienda existente.
- Capítulo 7. Condiciones de los garajes.
- Artículo 31. Garajes colectivos.
- Artículo 32. Garajes individuales de viviendas unifamiliares.
- Artículo 33. Dotación mínima de aparcamientos para bicicletas y motocicletas.
- Artículo 34. Dotación mínima para recarga de baterías de vehículos eléctricos.
- Capítulo 8. Condiciones de los trasteros.
- Artículo 35. Uso.
- Artículo 36. Dimensiones y altura mínimas.
- Artículo 37. Condiciones de los accesos.
- Artículo 38. Condiciones de ventilación.
- Capítulo 9. Condiciones funcionales aplicables a los locales destinados a usos diversos no residenciales (comerciales y usos asimilados).
- Artículo 39. Condiciones de acceso.
- Artículo 40. Altura libre mínima de los espacios.
- Artículo 41. Superficie mínima de los locales.
- Artículo 42. Altillos en plantas bajas o entresuelos.
- Artículo 43. Iluminación y ventilación.
- Artículo 44. Dotación de cuartos de aseo.
- Capítulo 10. Ordenanzas específicas de aplicación a las parcelas a.10. Edificación abierta.
- Artículo 45. Condiciones de edificabilidad.

46. artikulua. Eraikuntza-bolumenak.
47. artikulua. Estalkiak.
48. artikulua. Mantsardak eta txapitulak.
49. artikulua. Sabai-leihoak (velux).
50. artikulua. Fatxadaren materialak eta konposizioa.
51. artikulua. Gorputz irtenak.
52. artikulua. Atzeraemanguneak.
53. artikulua. Patioak.
54. artikulua. Lurzati librearen itxiturak.
55. artikulua. Lurzatien barne-urbanizazioa.
56. artikulua. Ibilgailuentzako sarbideak.
57. artikulua. Lurzati libreko erabilera osagarriak.
58. artikulua. «Eremu tradizionalen» dauden a.10 eraiki-
nen baldintza bereziak.
11. kapitulua. a.20. Garapen txikiko eraikuntza erabilera
duten lurzatiei aplikatu beharreko berariazko Ordenantzak.
59. artikulua. Eraikigarritasun-baldintzak.
60. artikulua. Eraikuntza-bolumenak.
61. artikulua. Estalkiak.
62. artikulua. Mantsardak eta txapitulak.
63. artikulua. Sabai-leihoak (velux).
64. artikulua. Fatxadaren materialak eta konposizioa.
65. artikulua. Gorputz irtenak.
66. artikulua. Atzeraemanguneak.
67. artikulua. Patioak.
68. artikulua. Lurzati librearen itxiturak.
69. artikulua. Lurzatien barne-urbanizazioa.
70. artikulua. Ibilgailuentzako sarbideak.
71. artikulua. Lurzati libreko erabilera osagarriak.
72. artikulua. «Eremu tradizionalen» dauden a.20 eraiki-
nen baldintza bereziak.
12. kapitulua. g. Komunitate-ekipamendua erabilera duten
lurzatiei aplikatu beharreko berariazko Ordenantzak.
73. artikulua. g. Komunitate-ekipamenduaren erabilera du-
ten lurzatiei baldintza estetikoak.
13. kapitulua. b.10. Industria erabilera duten lurzatiei apli-
katu beharreko berariazko Ordenantzak.
74. artikulua. Eraikitzeko baldintzak.
75. artikulua. Fatxadaren materialak eta konposizioa.
76. artikulua. Publizitate-errotuluak.
77. artikulua. Hegalkinak.
78. artikulua. Lurzatiei itxiturak.
Azken xedapena
Xedapen indargabetzailea

ZIOEN AZALPENA

Foru Aldundi honetako Diputatuen Kontseiluak, 2018ko abenduaren 11ko bilkuran, erabaki hau hartu zuen. Hona hemen haren edukia: «Udal-izapidetza egin ondoren, «Zaldibiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra» aurkeztu da, Foru Aldundiak behin betiko onespena eman diezaion». Erabakia 2019ko urtarrilaren 24ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (16. zk) argitaratu zen.

- Artículo 46. Volúmenes edificatorios.
Artículo 47. Cubiertas.
Artículo 48. Mansardas y buhardillas.
Artículo 49. Lumbreras (velux).
Artículo 50. Materiales y composición de fachada.
Artículo 51. Cuerpos salientes.
Artículo 52. Retranqueos.
Artículo 53. Patios.
Artículo 54. Cierres de parcela libre.
Artículo 55. Urbanización interior de las parcelas.
Artículo 56. Accesos para vehículos.
Artículo 57. Usos auxiliares en la parcela libre.
Artículo 58. Condiciones especiales para las edificaciones a.10 que quedan dentro del «Área tradicional».
Capítulo 11. Ordenanzas específicas de aplicación a las parcelas a.20. Edificación de bajo desarrollo.
Artículo 59. Condiciones de edificabilidad.
Artículo 60. Volúmenes edificatorios.
Artículo 61. Cubiertas.
Artículo 62. Mansardas y buhardillas.
Artículo 63. Lumbreras (velux).
Artículo 64. Materiales y composición de fachada.
Artículo 65. Cuerpos salientes.
Artículo 66. Retranqueos.
Artículo 67. Patios.
Artículo 68. Cierres de parcela libre.
Artículo 69. Urbanización interior de las parcelas.
Artículo 70. Accesos para vehículos.
Artículo 71. Usos auxiliares en la parcela libre.
Artículo 72. Condiciones especiales para las edificaciones a.20 que quedan dentro del «Área tradicional».
Capítulo 12. Ordenanzas específicas de aplicación a las parcelas g. Equipamiento comunitario.
Artículo 73. Condiciones estéticas para las parcelas de uso g. Equipamiento comunitario.
Capítulo 13. Ordenanzas específicas de aplicación a las parcelas b.10. Industrial.
Artículo 74. Condiciones edificatorias.
Artículo 75. Materiales y composición de la fachada.
Artículo 76. Rótulos de publicidad.
Artículo 77. Cuerpos volados.
Artículo 78. Cierres de parcela.
Disposición final
Disposición derogatoria.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Consejo de Gobierno Foral de esta Diputación Foral en sesión de 11 de diciembre de 2018, adoptó el acuerdo cuyo contenido a continuación se publica: «Tras su tramitación municipal, se presenta para aprobación definitiva por esta Diputación Foral el expediente del «Plan General de Ordenación Urbana de Zaldibia», acuerdo que se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 24 de enero de 2019, n.º 16.

Plan horrek 2000. urtetik indarrean dauden Plangintzako Arau Subsidiarioak berrikusten zituen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Lege-
ra egokitzeko helburuarekin.

Lege horren 75. artikulua arabera, udal guztiek nahitaez onartu behar dituzte eraikitze eta urbanizatzeko ordenantzak, toki-araubideari buruzko legeriaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 75. artikuluan zehazten den betebeharra betetzea da, hain zuzen ere, ordenantza hauen edea.

Zaldibiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak eraikuntzako ordenantzak jasotzen ditu, eta horiek nahitaez bete beharrekoak izango dira ordenantza hauek onartu bitartean. Ordenantza horiek eskubide osoz arautuko dute indarrean jartzen direnean.

Ordenantza hauek idazteko, Eusko Jaurlaritzak idatzitako hirigintzako eta eraikuntzako udal-ordenantzen oinarritzko eredia izan da kontuan, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen azken xedapenetatik bigarrenean ezarritakoarekin bat etorritik. Printzipioz, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eredu hori erabili beharko dute, erreferentzia gisa, aipatutako ordenantzak idazterakoan.

Kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzak egindako ordenantza-eredua erreferentzia gisa erabili behar dela udal-ordenantzak egiterakoan, betiere udalerrri bakoitzaren errealitatean oinarrituz, azken horiek aukeratu ahal izango baitute haiek guztiz edo zati batean erabiltzea, komenigarritasunaren, udalerrriaren tamainaren, eraikuntza-tipologiaren eta berezko administrazio-beharren arabera, Zaldibiako Udalak Zaldibiako errealitatera egokitu du aipatutako eredia.

1. KAPITULUA

APLIKAZIOA ETA KONTZEPTUAK

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

Irismen orokorreko arauak ordenantza hauen gainetik nagusituko dira, eta beraz, desberdintasunak egonez gero, murriztaileena aplikatuko da. Geroago beste arau eta lege batzuk onartuz gero, horiek Ordenantza hauetan aipatutakoak ordezkatu eta indargabetuko dituzte.

Ordenantza hauetan ezarritako baldintzak aplikatuko dira, oro har, egoitza-erabilerako lurzati finkatueta eta eremu tradizionalen sartzen diren lurzatieta. Udalak, zerbitzu teknikoek horri buruzko txostena egin ondoren, ezarritako babes-helburuekin kontraesankorrak diren xedapenen aplikazioa balio gabetu ahal izango du salbuespen gisa. Horretarako, eta horri buruzko kontsulta egin ondoren, zerbitzu horiek zehaztuko dute hartu beharreko irtenbidea.

Salbuespen hori ez da aplikatuko eraikina ordeztu edo husten denean.

Erregimen horixe bera aplikatuko zaie indarrean dagoen HA-POko Hirigintza Ondarearen Katalogoan jasotako egoitza-erabilerako eraikinei.

2. artikulua. Kontzeptuen definizioa.

2.1. Eraikineko solairuen definizioa:

— Sotoko solairua. Solairu hau, sarbidean izan ezik, sestra azpian dago, guztiz lurpean edo erdi lurpean. Azken kasu horretan, 1,20 m baino gehiagora egongo da beti, eraiki gabeko perimetro-eremuaren sestratik neurtuta, hura publikoa nahiz pribatua izan.

Este Plan revisaba las Normas Subsidiarias del Planeamiento, en vigor desde el año 2000 para su acomodación a la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 75 de la mencionada ley establece la obligación a todo Ayuntamiento de aprobar, conforme a la legislación de régimen local, ordenanzas de la construcción, edificación y urbanización.

El objeto de las presentes ordenanzas no es otro que el cumplir con la obligación establecida en el artículo 75 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Plan general de Ordenación Urbana de Zaldibia incluye ordenanzas de edificación que serán de aplicación en tanto y cuanto no se proceda a la aprobación de las presentes ordenanzas que regirán con pleno derecho una vez entren en vigor.

Para la redacción de las presentes ordenanzas se han tenido en cuenta el modelo básico de ordenanzas municipales de urbanización y edificación, redactado por el Gobierno Vasco en cumplimiento de lo establecido en la Disposición Final Segunda de la Ley 2-2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo de la CAPV y que en principio deberán ser utilizadas por los municipios del País Vasco como referencia para elaborar las citadas ordenanzas.

Atendiendo que el modelo de ordenanza elaborado por el Gobierno Vasco debe servir de referencia para la elaboración de la ordenanza municipal en base a la realidad de cada municipio, siendo estos últimos quienes podrán optar por su utilización completa o parcial según su conveniencia, tamaño de municipio, tipologías edificatorias que los caracterizan y necesidades administrativas propias, el Ayuntamiento de Zaldibia ha amoldado el señalado modelo a la realidad de Zaldibia.

CAPÍTULO 1

APLICACIÓN Y CONCEPTOS

Artículo 1. *Ámbito de aplicación.*

Sobre estas Ordenanzas prevalecerán las normas de alcance general, siendo de aplicación, en caso de diferencia, la más restrictiva. Las Normas y Leyes que se citan en estas Ordenanzas se considerarán sustituidas por otras que se aprueben con posterioridad derogando aquéllas.

Las condiciones que se establecen en la presente Ordenanza se aplicarán con carácter general en las parcelas residenciales consolidadas y en las integradas en el Área tradicional. El Ayuntamiento, previo informe de los Servicios Técnicos al respecto, podrá eximir excepcionalmente de la aplicación de aquellas disposiciones que resulten contradictorias con los objetivos de preservación establecidos. A tal efecto, y previa consulta al respecto, los citados servicios definirán la solución alternativa a adoptar.

Esta excepción no se aplicará en los casos de sustitución o vaciado de la edificación.

Este mismo régimen se aplicará, a las edificaciones de uso residencial incluidas en el Catálogo del Patrimonio Urbanístico del vigente PGOU.

Artículo 2. *Definición de conceptos.*

2.1. Definición de las Plantas de edificación:

— Planta sótano. Planta que, salvo en la parte de acceso a la misma, está situada bajo rasante, bien totalmente enterrada, bien semienterrada, en este caso siempre por debajo de 1,20 m medidos desde la rasante del espacio no edificado perimetral, público o privado.

– Erdisotoko solairua. Solairu hau partzialki dago lurpean, baina ez ditu beharrezko baldintzak betetzen sototzat edo beheko solairutzat hartzeko. Solairu bat partzialki lurperatuta dagoela esateko nahitaezkoa izango da fatxada bat edo gehiago sestraren gainetik 1,20 m baino gehiago azaltzea, eta ondorio horietarako ez dira kontuan hartuko mehelinak aldameneko erai-kinekin eratzen duena.

– Beheko solairua. Solairu honetan, zoru guztia sestra gainean dago, edo azpian, baina 1,20 m baino gutxiagora, bere fatxada guztietan; lurzoruaren edo sotoaren gainean egon daiteke.

– Goiko solairua. Beheko solairuaren gainean dagoen solairua.

– Estalkipeko solairua. Zuzenean forjatua edo estalki-taularen azpian dagoen solairua.

– Solairuartea. Hala esaten zaio bi solairuren artean dagoen eta eraikinaren itxiturek mugatzen duten azalera guztia hartzen ez duen solairuari.

Sotoa eta erdisotoa sestra azpiko solairutzat hartzen dira.

Beheko, goiko eta estalkipeko solairuak, aldiz, sestra gaineko solairutzat hartzen dira.

01.2. Eraikineko elementuen definizioa:

– Fatxada nagusia. Oinezkoentzako eraikineko sarrera nagusia dagoen aldea.

– Terraza. Eraikin baten zati baten estalki lauaren funtzioa betetzen duen gainazal horizontala, altuera berean dauden eraikinaren beste gela batzuetatik sarbidea duena.

– Galeria. Behekoa ez den beste solairu batean dagoen pieza, goitik estalita dagoen eta aurrealdean karek gisa egon litekeen itxitura besterik ez duena.

– Karrerapea. Gune estalia, eraikin baten kanpo-parametro-etako bati atxikia eta perimetroaren zati bat itxi gabe duena.

– Ataripea. Eraikuntzak estaltzen duen eta eremu publikoaren gainerakora zabalik dauden jabari pribatuko eta erabilera publikoko eremuak.

– Hegal irekiak. Babes gisa baranda duten hegalak, obrako edo arotzeriako itxiturarik gabea, hala nola balkoiak.

– Hegal itxiak. Perimetro osoan itxita dauden hegalak, igel-terrotzako edo arotzeriako zorua eta sabaia dutenak. Horien artean ditugu begiratokiak eta galeria itxiak.

– Estalkiko elementuak. Eraikinaren estalkitik gora ateratzen diren eraikuntza-elementuak dira eta eraikinak baimenduta dituen solairu kopurua edo altuera gainditzen dute:

1. Tximiniak.
2. Aireztatze- edo hozte-hodiak.
3. Telebista- eta irrati-antenak, besteak beste.
4. Eguzki-plakak.
5. Iggogailuen instalazio-gelak.
6. Argi-zuloak eta sabai-leihoak.
7. Txapitulak eta dorreak, baimenduta daudenean.
8. Indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako irizpideekin bat etorriz, modu horretan kokatu beharreko beste edozein elementu tekniko.

– Patioak. Etxebizitzan bizigarritasun-baldintzak bermatzeko helburuarekin, eraikinaren barrualdean irekitzen diren edo fatxadara ireki daitezkeen espazioak dira. Erregistro-finka desberdinek partekatzen dituzten patioei patio komunak deitzen zaie.

– Solairuaren altuera. Solairuaren puntu bakoitzeko distantzia bertikala da, solairua mugatzen duten forjatuen goiko aldean artean.

– Planta semisótano. Planta parcialmente enterrada que no reúne las condiciones necesarias para su consideración ni como sótano ni como planta baja. Se entenderá parcialmente enterrada una planta siempre que una o más fachadas afloren sobre la rasante con una altura superior a 1,20 m, sin considerar a esos efectos las que formen medianera con las edificaciones colindantes.

– Planta baja. Es aquella cuyo piso está situado en su totalidad sobre rasante o a menos de 1,20 m por debajo en todas sus fachadas; puede encontrarse directamente sobre el terreno o sótano.

– Planta alta. Planta situada por encima de la planta baja.

– Planta bajo cubierta. Es aquella situada directamente bajo el forjado o tablero de cubierta.

– Entreplanta. Se denomina así a la planta situada entre dos plantas y que no llega a ocupar toda la superficie delimitada por los cerramientos de la edificación.

Las plantas sótano y semisótano se consideran plantas bajo rasante.

Las plantas baja, altas y bajo cubierta se consideran plantas sobre rasante.

01.2. Definición de los Elementos de la edificación:

– Fachada principal. Aquella sobre la que se sitúa el acceso peatonal principal a la edificación.

– Terraza. Superficie horizontal que actúa como cubierta plana de parte de un edificio, siendo accesible desde otras piezas de la edificación situadas a la misma altura.

– Galería. Pieza situada en una planta distinta de la baja, cubierta superiormente y sin otro cerramiento en su frente que el que pueda existir como antepecho.

– Porche. Espacio cubierto, adosado a uno de los paramentos exteriores de un edificio, y que mantiene sin cerrar parte de su perímetro.

– Soportal. Espacios de dominio privado y uso público, a cubiertos por la construcción y abiertos al resto del espacio público.

– Vuelos abiertos. Vuelos con protección de barandilla, sin cierre de obra ni de carpintería, entre ellos, los balcones.

– Vuelos cerrados. Vuelos cerrados en todo su perímetro y con suelo y techo con obra de albañilería o carpintería. Entre ellos se encuentran los miradores y galerías cerradas.

– Elementos de cubierta. Son aquellos que sobresalen por encima de la cubierta en las construcciones que agotan el número de plantas o la altura de edificación autorizados, tales como:

1. Chimeneas.
2. Conductos de ventilación o refrigeración.
3. Antenas de radio, televisión, etc.
4. Placas solares.
5. Cuartos de instalaciones de ascensores.
6. Claraboyas y lucernarios.
7. Buhardillas y torreones en los supuestos autorizados.
8. Cualesquiera otros elementos técnicos que, de conformidad con los criterios establecidos en las disposiciones legales vigentes deban colocarse de esa manera.

– Patios. Se denominan patios a los espacios que se abren en el interior de los edificios o que pueden ser abiertos a la fachada con el objeto de garantizar las condiciones de habitabilidad. Los patios comunes a diferentes fincas registrales se denominan patios mancomunados.

– Altura de planta. Es la distancia vertical existente en cada punto de la planta entre las caras superiores de los forjados que delimitan la planta.

– Solairuaren altuera librea. Solairuaren puntu bakoitzeko distantzia bertikala da, solairu bakoitzeko bukatutako azaleren artean dagoena (zoru-sabaia, oro har).

3. artikulua. Espazioak neurtzeko sistema.

– Azalera erabilgarria.

Azalera erabilgarritzat jotzen da etxebizitza, trasteleku, garaje edo lokalen lur-azalera, kanpoaldea edo beste erabilera batzuetako lokalak itxeko horma barruko aurpegiaren perimetroak zehazten duen moduan neurtuta.

Azalera erabilgarriaren zenbaketatik kanpo geratzen da etxebizitzaren barneko itxitura finko zein mugikorrek oinean hartzen duten azalera, baita egiturazko elementu bertikalek eta 100 cm²-tik gorako proiektzio horizontala duten kanalizazio edo hodi bertikalek eta 1,50 m-tik beherako altuera librea duen zoru-azalera hartzen dutena ere.

Etxebizitza edo lokalak berdinak badira eta zutabe bertikalean antolatuta badaude eraikin berean, egiturazko elementu bertikalek eta 100 cm²-tik gorako proiektzio horizontala duten kanalizazio edo hodi bertikalek oinean okupatutako azalera zenbatzeko, zutabearen beheko eta goiko oinetan dauden etxebizitzetara dagozkien balioen batez besteko aritmetikoa hartuko da aintzat.

Elementu komunak, hala nola eskailerak, korridoreak, atariak, igogailuak, barruko patioak eta abar, azalera erabilgarritzat hartuko dira solairu guztietan.

1. Etxebizitzen azalera erabilgarria.

Etxebizitzaren azalera erabilgarriak etxebizitzaren erabilera pribatuko kanpo-espazioen –terrazak, esekilekuak eta abar– zoru-azalaren erdia barne hartuko du. Etxebizitzaren gutxieneko azalera dagokionez, barne-espazioen azalera erabilgarria bakarrik hartuko da kontuan.

Familia bakarreko etxebizitzetan, elementu eraikiak ez diren erabilera pribatuko kanpo-espazioak ez dira zenbatuko etxebizitzaren azalera erabilgarri gisa.

2. Trastelekuen azalera erabilgarria.

Trastelekuaren gehieneko azalera erabilgarri zenbakarria barrundegi independentean barrualdea izango da, elementu komunak zenbatu gabe.

3. Aparkalekuen azalera erabilgarria.

Garaje-plaza bakoitzaren azalera erabilgarria kalkulatzeko, garaje-plaza hori zehazten duen perimetroaren barne-azalera barneko gurbide eta sarbide-arrapaletatik dagokion zati proporzionala batuko zaio.

– Azalera eraikia.

Azalera eraikitza hartzen da solairu bakoitzaren kanpo-leroek mugatzen dutena, erabilera posiblea badu.

Balkoiak edo terrazak eta itxi gabeko azalera estalien (ataripe edo solairu gardenak) kasuan, azalaren % 50 zenbatuko da.

Txapitula-formako solairuen kasuan, 1,50 m-tik gorako altuera duten solairuak zenbatuko dira.

Higiezinaren azalera eraikiak elementu komun zati proporzionala hartuko du barne, etxebizitza-programa edo beste erabilera batzuetarako programa garatzeko beharrezkoak diren eskailerak (solairu guztietan, sarbidean nahiz azken lehorrerazean), igogailuak, barne-patioak eta abar barne.

– Azalera konputagarria.

Azalera eraiki itxia da, 1,80 m-tik gorako altuera duena. Ez dira kontuan hartuko hegala irekiak, baina bai fatxadako hiru horma-atalek bertikalki mugatutakoak eta estaliak.

Etxebizitzaz bestelako erabilera dituzten eraikinetan, hala nola industria- eta merkataritza-lokaletako solairuartertan, 2,20

– Altura libre de planta. Es la distancia vertical existente en cada punto de la planta entre las superficies acabadas de cada planta (suelo-techo en general).

Artículo 3. Sistema de medición de los espacios.

– Superficie útil.

Se entiende por superficie útil la del suelo de la vivienda, trastero, garaje o local delimitada por el perímetro definido por la cara interior de sus cerramientos con el exterior o con otros locales de distinto uso.

Del cómputo de superficie útil queda excluida la superficie ocupada en la planta por los cerramientos interiores de la vivienda, fijos o móviles, por los elementos estructurales verticales y por las canalizaciones o conductos verticales cuya proyección horizontal sea superior a 100 cm², así como la superficie de suelo en la que la altura libre sea inferior a 1,50 m.

Cuando se trate de viviendas o locales iguales y dispuestos en columna vertical dentro de un mismo edificio, para el cómputo de las superficies ocupadas en planta por los elementos estructurales verticales y por las canalizaciones o conductos verticales cuya proyección horizontal sea superior a 100 cm², se tomará la media aritmética de los valores correspondientes a las viviendas situadas en plantas inferior y superior de la columna.

Los elementos comunes como escaleras, pasillos, portales, ascensores, patios interiores, etc, computarán como superficie útil en todas sus plantas.

1. Superficie útil de viviendas.

La superficie útil de la vivienda incluirá también la mitad de la superficie de suelo de los espacios exteriores de uso privativo de la misma tales como terrazas, tendedores y otros. A efectos de superficie mínima de vivienda, únicamente se tendrá en cuenta la superficie útil de los espacios interiores.

En las viviendas unifamiliares, los espacios exteriores de uso privativo que no sean elementos construidos, no computarán como superficie útil de la vivienda.

2. Superficie útil de trasteros.

La superficie útil computable de trastero será la interior a la dependencia independiente, sin computar los elementos comunes.

3. Superficie útil de aparcamientos.

La superficie útil de cada plaza de garaje será la suma de la comprendida dentro del perímetro que define la misma más la parte proporcional que le corresponda de carriles de rodadura y rampas de acceso interiores.

– Superficie construida.

Se entiende por superficie construida la delimitada por las líneas exteriores de cada una de las plantas que tenga un uso posible.

Los balcones o terrazas y las superficies cubiertas no cerradas (porches o plantas diáfanas) se computarán al 50 % de su superficie.

Las plantas abuhardilladas computarán la parte de ellas que tengan una altura superior a 1,50 metros.

La superficie construida total del inmueble incluirá la parte proporcional de elementos comunes, incluidos escaleras (en todas las plantas, tanto en la de acceso, como en la de desembarque último), ascensores, patios interiores, etc, necesarios para desarrollar el programa de vivienda o de otros usos.

– Superficie computable.

Es la superficie construida cerrada con altura mayor a 1,80 metros. No computarán los vuelos abiertos, pero sí los cubiertos y delimitados verticalmente por tres paños de fachada.

En edificaciones de usos diferentes al de vivienda, como entrepisos en locales industriales y comerciales, se computarán

m-tik gorako altuera duten espazioak zenbatuko dira. 2,20 m-tik beherako altuera duten espazioak instalazioetarako goitegi gisa bakarrik baimenduko dira, eta pertsonak ezin izango dute eten-gabe okupatu.

– Eraikinaren eta solairuen altuera neurtzeko irizpideak.

1. Eraikinaren altuera espaloia- edo leundutako espazio librearen batez besteko kotatik neurtuko da, hura dagokion fatxadarekiko mugakidea denean, fatxadaren planoaren gainean bertikalki, estalkiaren plano inklinatuaren beheko alderaino edo azken solairua estaltzen duten forjatuen beheko alderaino.

2. Eraikinak bi kale edo eremu publikotara ematen duenean, altuera sestrarik altuenarekin bat egiten duen fatxadan neurtzen da.

3. Solairu baten altuera solairuak euskarri duen forjatuen goiko aldetik (edo zolatik) solairua estaltzen duen forjatuen goiko aldera neurtzen da. Estalkipeko solairuetan, altuera fatxadaren kanpoko aldean neurtzen da. Ageriko zurezko forjatuetan, altuera neurtzeko goiko erreferentzia solibaren edo kontragoiha-bearen behealdea izango da.

2. KAPITULUA

ERAIKIN GUZTIEN BALDINTZA KOMUNAK

4. artikulua. *Jasangarritasun-irizpideak.*

– Eraikinen ingurutzalea hobetzeari emango zaio lehentasuna, eraikinak irauten duen bitartean energiari eskatzen ez duten konponbide pasiboak erabiliz: isolamendu handiagoak, zubi termikoak ezabatzea, transmisio termikoko koefiziente txiki-ko arotzeria eta beirak, kanpoko eguzki-babesak eta hermetikotasuna hobetzea.

– Lehentasuna emango zaio, halaber, energia berriztagarriak erabiltzeari, eraikinetan sortutakoehi nahiz inguruan sortutakoehi (bero-ponpa geotermikoak edo aerotermikoak, eguzki-panelak estalkian, fatxadak eta abar), iturri ez-berriztagarrietatik datozen energiak kaltetan, hala nola petroliotik eratorritakoetan.

– Ingurune geografikotik gertu lortutako materialak, produktuak eta sistemak erabiltzeari emango zaio lehentasuna, beharrezkoak ez diren garraio-gastuak saihesteko; era berean, birziklatutako materialei emango zaie lehentasuna.

– Eraikitzen ari direnean, nekez ordezkara daitezkeen edo mantentzeko garestiak diren material hauskorak saihestuko dira, baita kolore ilunak ere, eguzki aldera orientatuta daudenean bero handia xurgatzen baitute.

– Materialak berrerabiltzea eta birziklatzea sustatuko da, baita lehengai ugariarekin egindako materialak eta karbono-aztarna txiki-ko produktuak eta sistemak erabiltzea ere.

– PVCaren ordezkara aukerak erabiliko dira saneamendu-, hornidura- edo elektrizitate-instalazioetan. Ez dira erabiliko energia handia behar duten materialak, aluminioa, adibidez.

– Lorategi-elementuen (landare-estalkiak eta -fatxadak, zuhaitzak eta soropila urbanizazio pribatuetan, besteak beste) erabilera sustatuko da, eraikinen baldintza klimatiko kaltegarriak arintzen laguntzeko: eguzki-aldia udan, hotza neguan, hai-zeari aurre egiteko babesa eta abar.

– Espezie autoktonoak erabiliko dira, kokatuta dauden klimara egokituta daudenak (ureztatu eta inausi behar ez direnak, edo zaintza berezirik behar ez dutenak), mantentze-lanak ahalik eta txiki-ko izan daitezkeen.

– Ura kontsumitzeko sistemak eraginkorrak izango dira: deskarga bikoitzeko komun-ontziak, ur grisak (konketa, dutxa eta abar) eta euri-urak aprobetxatzen dituztenak; difusoreak dituzten ur-iturri termostatikokoak; eta abar.

los espacios con altura superior a 2,20 metros. Los espacios con altura inferior a 2,20 metros se permitirán únicamente como altillos para instalaciones, sin posibilidad de ocupación permanente por personas.

– Criterio para la medición de la altura de edificación y de las plantas.

1. La altura de la edificación se medirá desde la cota media de la acera o espacio libre suavizado, lindante con la respectiva fachada, verticalmente sobre el plano de la fachada hasta la cara inferior del plano inclinado de de la cubierta o hasta la cara inferior del forjado que cubre la última planta.

2. Cuando el edificio da frente a dos calles o espacios públicos, la altura se mide en la fachada que se encuentra con la rasante más alta.

3. La altura de una planta se mide desde la cara superior del forjado (o de la solera) en que se apoya a la cara superior del forjado que la cubre. En las plantas bajocubierta, la altura se mide en la cara exterior de la fachada. En los forjados de madera vista, la referencia superior para medir la altura será la parte baja del solivo o correa.

CAPÍTULO 2

CONDICIONES COMUNES A TODOS LOS EDIFICIOS

Artículo 4. *Criterios de sostenibilidad.*

– Se dará prioridad a la mejora de la envolvente de los edificios mediante soluciones pasivas que no demandan energía durante la vida del edificio, como mayores aislamientos, eliminación de puentes térmicos, carpinterías y vidrios con bajos coeficientes de transmisión térmica, protecciones solares exteriores y mejora de la hermeticidad.

– Se dará prioridad al recurso a energías renovables producidas en los edificios o en su entorno (bombas de calor geotérmicas o aerotérmicas, paneles solares en cubierta, fachadas, etc.) en detrimento de energías procedentes de fuentes no renovables como las derivadas del petróleo.

– Se priorizará la utilización de materiales, productos y sistemas obtenidos en la proximidad del entorno geográfico con el fin de evitar gastos innecesarios de transporte, priorizando los materiales provenientes de reciclaje.

– En construcción se evitarán materiales frágiles, difícilmente reemplazables o de mantenimiento costoso y los colores oscuros con alta absorción de calor en orientaciones con soleamiento abundante.

– Se promoverá la reutilización y el reciclaje así como el empleo de materiales fabricados con materias primas abundantes y productos y sistemas de baja huella de carbono.

– Se utilizarán alternativas al PVC en las instalaciones de saneamiento, abastecimiento o electricidad. Se evitarán materiales con altas necesidades energéticas para su elaboración, como el aluminio.

– Se promoverá la incorporación de elementos ajardinados (cubiertas y fachadas vegetales, árboles y césped en las urbanizaciones privadas, etc.) de forma que contribuyan a amortiguar las condiciones climáticas adversas sobre los edificios: soleamiento en verano, frío en invierno, protección frente al viento, etc.

– Se recurrirá a especies autóctonas, adaptadas al clima en el que se ubican, que no requieran riego ni podas y cuidados especiales, de forma tal que su mantenimiento sea mínimo.

– Los sistemas de consumo de agua serán eficientes, como tanques de inodoros de doble descarga con aprovechamiento de aguas grises (lavabo, ducha, etc.) y pluviales, grifos termostáticos de agua con difusores, etc.

– Berokuntzako eta etxeko ur beroko sistema zentralizatuei emango zaie lehentasuna, gastuak etxebizitza bakoitzeko berezita.

– Temperatura baxuko sistema termikoak erabiltzen saiatu beharko da, baita Kudeaketa-sistema adimendunak ere, etxebizitzaren erabiltzaileak energiaren erabileran eraginkortasun handiagoa lor dezan eta energia-gastua kontrolatzeko gaitasuna izan dezan.

– Eraikinak birgaitzeari eta hutsik edo erabiltzen ez diren etxebizitzak okupatzeari emango zaio lehentasuna.

– Oin berriko etxebizitza-eraikinetan, gutxienez bi orientazio fatxadak eskatuko dira, aireztapen gurutzatua bermatzeko.

5. artikulua. Eraikinen ekoeraginkortasun-irizpideak.

Eraikinak ekoeraginkorrak izango dira. Eraginkorrak izango dira baliabideen erabilerari dagokionez, bereziki energiaren, materialen eta uraren kontsumoari dagokionez; energia berriztagarrien erabilera sustatuko dute, kanpoko energia gutxi beharko dute behar bezala funtzionatzeko, euri-uren eta lurpeko uren erabilera egokia egingo dute eta behar bezala kudeatuko dituzte hondakin-urak, ingurumen-ziurtagiria duten materialak erabiliz.

Isolamendu handiko eraikinak eraiki eta birgaitu beharko dira, zubi termikoen eta nahi gabeko aire-iragazketen kontrol zorrotza egin beharko da, prestazio termiko handiko arotzeriak erabili beharko dira eta eguzkiaren aprobetxamendu optimoa egin beharko da barneko airearen kalitate ona bermatzeko, beroa berreskuratzen duten aireztapen kontrolatuko sistemak erabiliz.

Material naturalen erabilera sustatuko da, betiere erauzketa-, garraio- eta eraldatze-prozesuetan behar den energia kontuan hartuta, eta tokiko produktuei eta sistemei emango zaie lehentasuna, naturan duten eragina txikiagotzeko (ingurumen-jasangarritasuna) eta inguruneke ekonomiari laguntzeko (gizarte-jasangarritasuna). Irizpide horiek ebaluagarriak izango dira proiektuen eta obren lizitazioetan.

Gutxienez, honako neurri hauek hartu beharko dira kontuan:

– Temperatura baxuko sistema termikoak ezartzea.

– Kudeaketa-sistema adimendunak txertatzea, etxebizitzaren erabiltzaileak energiaren erabileran eraginkortasun handiagoa lor dezan eta energia-gastua kontrolatzeko gaitasuna izan dezan.

– Duxtetan eta komun-ontzietan txorrota termostatikoak jarzea, eta deskarga bikoitzeko komun-ontziak erabiltzea.

– Garbigailuak eta ontzi-garbigailuak Etxeko Ur Beroaren sarrera konektatzea.

Era berean, eraikin eraginkorrak sustatuko dira, honako hauek kontuan hartuta:

– Urteko kWh/m² kontsumoak.

EKT betetzen duten kontsumo ertaineko eraikinak.

Kontsumo txikiko eraikinak, EKT eta 15/25 kWh/m² artean.

Kontsumo ia nulua duten eraikinak: ≤15 kWh/m² obra berria eta ≤25 kWh/m² birgaitzean.

– Kg CO₂ isuriak/m² urtean (47/2007 Errege Dekretuaren arabera).

A energia-kalifikazioa duten eraikinak.

B energia-kalifikazioa duten eraikinak.

C energia-kalifikazioa duten eraikinak (hori da gutxienez egoitza-erabilera duten eraikinetan).

D energia-kalifikazioa duten eraikinak (hori da gutxienez elkartasun publikoko erabilera duten eraikinetan).

– Se dará prioridad a sistemas de calefacción y ACS centralizados, convenientemente discriminados los gastos de forma individual para cada vivienda.

– Se procurará incorporar sistemas térmicos de baja temperatura, así como sistemas inteligentes de gestión para lograr una mayor eficiencia y capacidad de control del gasto energético por parte del usuario de la vivienda.

– Se primará la rehabilitación de edificios y la ocupación de las viviendas vacías o en desuso.

– En edificios de vivienda de nueva planta se exigirán al menos fachadas a dos orientaciones con el fin de garantizar la ventilación cruzada.

Artículo 5. Criterios de ecoeficiencia en los edificios.

Los edificios serán ecoeficientes. Serán eficientes en relación con el uso de recursos, en particular en lo referente al consumo de energía, materiales y agua, favorecerán el uso de energías renovables, necesitarán poca energía exterior para su adecuado funcionamiento, harán un uso adecuado del agua procedente de la lluvia y de las aguas subterráneas y gestionarán adecuadamente las aguas residuales, utilizando materiales con certificación medioambiental.

Se deberán construir y rehabilitar edificios con un alto grado de aislamiento, un control riguroso de los puentes térmicos y de las infiltraciones de aire indeseadas, unas carpinterías de altas prestaciones térmicas y un aprovechamiento óptimo del soleamiento garantizando una buena calidad de aire interior mediante sistemas de ventilación controlada con recuperación de calor.

Se promoverá el empleo de materiales naturales, teniendo en cuenta la energía requerida en los procesos de extracción, transporte y transformación y priorizando productos y sistemas locales con el fin de minimizar su impacto en la naturaleza (sostenibilidad ambiental) y favorecer la economía del entorno (sostenibilidad social) resultando estos criterios evaluables en las licitaciones de proyectos y obras.

Como mínimo se tendrán en cuenta las siguientes medidas:

– Incorporar sistemas térmicos de baja temperatura.

– Incorporar sistemas inteligentes de gestión para lograr una mayor eficiencia y capacidad de control del gasto energético por parte del usuario de la vivienda.

– Utilizar grifos termostáticos en duchas y bañeras e inodoros de doble descarga.

– Conectar las lavadoras y lavavajillas a la red de Agua Caliente Sanitaria.

Se promoverán igualmente los edificios eficientes tomando en consideración:

– Consumos kWh/(m²-año).

Edificios de consumo medio cumplen CTE.

Edificios de consumo bajo entre CTE y 15/25 kWh/(m²-año).

Edificios de consumo casi nulo ≤ 15 kWh/(m²-año) en obra nueva y ≤ 25 kWh/(m²-año) en rehabilitación.

– Emisiones Kg CO₂ /m² año (según RD 47/2007).

Edificios de calificación Energética A.

Edificios de calificación Energética B.

Edificios de calificación Energética C (mínima para edificios de Residencial Vivienda).

Edificios de calificación Energética D (mínima para edificios de Pública Concurrencia).

6. artikulua. Faseka birgaitzeko irizpideak.

Etxebizitza-erakinen eta hirugarren sektoreko eraikinen birgaitze-lanetan, ingurutzaila faseka birgaitu behar denean, esku-hartzeetan ordena honi jarraituko zaio ahal izanez gero:

1. Estalkia.
2. Leihoetako arotzeria.
 - Iparraldeko eta mendebaldeko fatxadak.
 - Ekialdeko eta hegoaldeko fatxadak.
3. Fatxaden isolamendua.
 - Iparraldeko eta mendebaldeko fatxadak.
 - Ekialdeko eta hegoaldeko fatxadak.

7. artikulua. Kokalekua, zerbitzuak eta instalazioak.

Eraikinek indarrean dagoen hirigintza- eta eraikuntza-araudiarekin bat etorri beharko dute, eta honako zerbitzu eta instalazio hauek izan beharko dituzte (edo hala badagokio, horiek hornitzeko lanak baimendu beharko dira):

1. Ibilgailuen sarbidea lurzatiaren mugaraino. Gainera, Eraikuntza Kode Teknikoan (CTE-SI) jasotako hurbiltze-baldintzak eta inguruko baldintzak bete beharko dira.
2. Lokal teknikoetarako eta hiri-hondakinen gaikako bilketarako eremuak.
3. Edateko uraren eta energia elektrikoaren hornidura, eraikinean lehenik dagoen edo aurreikusita dagoen erabilera asetzeko moduko emariarekin eta potentziarekin; eta suteen aurka babesteko ekipoen sarea, indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.
4. Euri-urak eta ur beltzak bereizteko saneamendu-sarea.

Eraikin isolatuen kasuan, ur beltzen saneamendua hobi septiko batekin konponduko da. Hobi horrek honako ezaugarri hauek izango ditu: CE marka duen sistema aurrefabrikatu bat izango du, eta dekantazio-digestiorako eremu bat eta beraiazko material sintetiko betetako iragazki biologiko bat izango ditu. Urak isuri aurretik, laginak hartzeko kutxatila bat instalatuko da. Euri-urak lurzoru pribatibora edo drainatze-kutxatila batera isuriko dira hodi baten bidez, eta guztiz debekatuta egongo da areka, bide edo galtzada-saretetara isurtzea.

5. Telekomunikazio-instalazioak.

Etxebizitza-erakinek eta industria-erakinek postontziak eta bideo-atezainak izan beharko dituzte.

Egoitza-erabilera ez duten eraikinetako solairuetan (merkataritza-lokaletan, aparkalekuetan eta abarretan), eraikinek aireztatzeko eta kea eta gasak husteko hodiak izan beharko dituzte eraikinaren gainerako solairuetatik aparte, eta estalkiraino eramango dira.

Beheko merkataritza-solairuetako hodien sekzioak kalkulazterakoan, honako hau hartu behar da kontuan: barneko airearen kalitateak IDA3 izan behar du gutxienez, eta 10 berritze izan behar ditu orduko. Hodiak kanpaiak ateratzeko elementuekin osatuko dira (250 mm-ko barneko bat 200 m² bakoitzeko).

8. artikulua. Irisgarritasuna.

8.1. Irisgarritasun-baldintzak.

– Behar bezala ziurtatu beharko da eraikinak barrura sartzeko aukera ematen duela eta elementu komunekin (garajekin, trastelekuekin, etxebizitzekin, lokalekin eta erabilera komunitarioko beste gela batzuekin) komunikatuta dagoela, solairu guztietan eta inolako diskriminaziorik gabe, modu independentean eta pertsona guztientzako modu seguruan. Baldintza hori betetzeko, irisgarritasun egokia izateko moduan proiektatu eta eraiki beharko da eraikina, Estatuan eta autonomia-erkidegoetan indarrean dagoen araudian zehaztutakoa kontuan hartuta.

Artículo 6. Criterios de rehabilitación en fases.

